



**Energariak S.L.**

Gu Eneko Garcia (administrazio lanak, informatikoa eta saltzailea), Iker Huarte, Markel Etxarte eta Imanol Ugaldebere (instalatzaileak) gara eta Empresa berri bat sortu dugu Beran (Nafarroa) etxeko kalefakzio instalazioak eta plaka fotoboltaikoak instalatzen dituen.



## **BALIO PROPOSAMENA**

Ikusi dugu Bortziri, Malerreka eta Baztan aldean etxe partikular eta baserri haundi aunitz badirela eta gehienek gasa eta argia ordaintzen dutela hilabetero, horrez gain, ingurunea gero eta gehio kutsatzen dugu gizakiok energia ez-berriztagarriak erabiltzen ditugulako.

Horreri lotuta gure enpresaren helburua aerotermia, geotermia eta plaka fotoboltaikoak erabilia ingurunea hobetzea da energia berriztagarriak erabiliz. Denbora luzera errentagarria ateratzen da energia hauek ez direlako bukatzen eta naturatik heldu direlako. Instalazioa jartzen bukatzean ordaintzen duzu eta ez duzu berriz ordaindu beharrik, alderantziz gasa eta argia hilabetero ordaintzen dira eta.